

Gure erakundearentzako egokiak diren balioak: **BALIOAK**

Gero eta hobeto egitea gure lana.

- Kalitatea ongi egindako lanarekin eta etengabeko hobekuntzarekin identifikatzen dugu, bai maila pertsonalean, baita talde eta erakunde mailan ere.

Jarrera baikorra eta hobekuntza pertsonala.

- Gure erakundetik, pertsonarengan eta bere jarrera baikorrean, maila pertsonalean eta lanbidearen arloan hobetzeko prest dagoen gizakiarengan oinarritutako aldaketa bultzatzen dugu.

Ardurak onartu eta beraiei aurre egin.

- Konfidantza jarriko dugu pertsonengan, ardurak hartzeko aukera emango diegu eta beren lana aintzat hartuko dugu.

Asmoa eta planifikazioa.

- Gure erakundean, talde eta bilera lanetan asmo bat oinarri hartuta arituko gara.

Talde-lana.

- Talde-lanean, metodologia eta diziplinaz lan egingo dugu, eta gure lanean gehiengo parte-hartze, ekarpen, eraginkortasun, gogobetetasun eta errendimendua lortzen saiatuko gara.

Gardentasunaren kultura: datuak eta ageriko kudeaketa.

- Adierazleekin egingo dugu lan, ziurtasunetan oinarrituko gara eta ikusten den kudeaketa eta datuetan oinarritutako kudeaketa erraztuko duten baliabideak erabiltzeko aukera egingo dugu.

Ikasleen eta interes-taldeen iritzia entzun.

- Gure lanaren hartzaile direnei balio gehiago eman nahi diegu. Gure lan-prozesua hobetzeko, haien iritzia eta itzaropenak kontuan hartuko ditugu.

Elkarkidetzaren harremanak.

- Gure jakintza partekatu egingo dugu, eta elkarren onurarako aukeren alde jokatu dugu.

Parte-hartzea eta errespetua.

- Institutuan parte hartzeko giroa sortzen eta ideien errespetu eta tolerantzia oinarritzen saiatuko gara, arazoaren arrazoiak bilatuko ditugu, eta giro atsegina sortuko dugu.

Seriotasuna, txukuntasuna eta garbitasuna.

- Ikastetxeko instalazio guztietan txukuntasunari eta garbitasunari garrantzia ematea, baita gure gain hartzen ditugun lanak seriotasun eta konpromenez burutzea baloratuko ditugu.

Entzun eta Komunikatu

- Gure ikastetxean, era aktiboan entzuten eta komunikazioa hobetzen saiatuko gara, eskola geurea balitz bezala sentitu, eta behar den informazioa argi eman dezagun.

Ohiturak

- Ohitura intelektualak eta lanerakoak, eta bizimodu osasuntsua eta ingurugiroari errespetuz begiratzen diona sustatuko ditugu.

Elkartasuna

- Elkartasuna, berdintasuna, justizia eta gizartearen ongizatearen aldeko ekintzak sustatuko ditugu

Ikastetxearen jardun biderako lerro nagusiak: ESTRATEGIAK

1. Ikastetxearen kudeaketa hobetzea, hobekuntza taldeetan eskuhartzea bultzatuz.
2. Irakaskuntza Arautua eta Ez-Arautua hobetzea, irakasleen prestakuntzaren optimizazio eta beren partehartzearen bitartez proiektuetan.
3. Ekipamendua, irakas baliabideak eta instalazioak hobetzea, kalitateko irakaskuntza eskaini eta Ikastetxearen irudi ona emateko.
4. Bezeroen asebetetzea handitzea beren beharriaz erantzunez eta beren ekarpenak kontuan hartuz.
5. Ikastetxearen giza proiektzioa eta honek erakunde eta inguruko lantegietan duen eragina handitzea.
6. Beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea elkartasun estrategikoen bidez, Ikastetxearen kudeaketaren eragin handiagoa lortzeko.
7. Ikasleen lan eta gizarte munduratzeko bultzatzea beraien eta beren hezkuntza eta lan orientazio egokiaren bitartez.
8. Pertsonen eta instalazioen segurtasuna hobetzea, helburu horretarako egokiak diren prebentzio neurriak hartuz.